

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**5/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honen bidez, Arabako zerga araudiari balio erantsiaren gaineko zergan eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan egindako hainbat aldaketa egokitzen dio**

Arabako Batzar Nagusiek 2016ko otsailaren 17an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

5/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honen bidez, Arabako zerga araudiari balio erantsiaren gaineko zergan eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan egindako hainbat aldaketa egokitzen dio

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez Arabako zerga araudiari balio erantsiaren gaineko zergan eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan egindako hainbat aldaketa egokitzen dio.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez Arabako zerga araudiari balio erantsiaren gaineko zergan eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan egindako hainbat aldaketa egokitzen dio.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 17a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**